

## BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresan, Elkarrekin SA-n, hirugarren adineko pertsonekin “Cohousing” mota bat egiten saiatzen gara, batez ere haien bizitza errazteko eta populazioaren zati honetan ohikoa den bakardade-sentimendua desagerrarazteko.

Arazo bat dagoela egiaztatu ondoren, arazo hori konpontzen saiatzeko ideia sortu da. Espainian 4.849.900 pertsonak bizi dira bakarrik eta zifra horretatik %43a 65 urte edo gehiago ditu. Horietako askok bakarrik sentitzen direla aditzera eman dute, eta horrek kaltegarria izan daiteke beraien osasunarentzat. Hala ere, bakardadea sentitu arren, gehienek nahiago dute beren etxeetan geratu egoitza batera joan baino.



Zergatik ez elkartu etxe berean zaletasun komunak, antzeko adina eta elkarrekin bizi ahal diren horietako bi pertsona? Elkarrekin ez da bikoteen plataforma bat. Gure asmoa pertsona horiek epe ertain eta luzera beste pertsona batzuekin bizitzen laguntzea da.

Adinekoentzako Cohousing-ak intimitatearen eta konpainiaren gakoa izan daiteke, independentziaren eta arreta pertsonalizatuaren arteko oreka.

Gure proiektuak zahartze aktiboa bultzatzea du helburu, ingurune atseginak sortuz adinekoen arteko independentzia ahalbidetu eta onuratzeko. Pertsona heldu askok zoritxarrez bizi dituzten bakardade ingurune horietatik ateratzeko ere balio izango du.



Gogoan izan behar dugu adineko pertsonen bakardadea eta ikuspen falta direla arazo garrantzitsuenetakoa bat. Bai gaur egun, bai etorkizunean, arazo horri aurre egin beharko diogu guztiok.

Egoitzetan ez bezala, gure proiektuak askatasuna eta pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu, bakardade egoerak saihestuz. Egoitza tradizionalak, bestalde, oso faktore zorrotzak dituzte, eta uste dugu ez dutela sustatzen adineko pertsonen autonomia. Horrek isolatu egiten ditu. Zahartze aktiboa, bizikidetzeta eta harremanak bultzatzen ditu. Horrek bizi-itxaropena luzatzea dakar.



Gure enpresak zerbitzu azkarra, eroso eta segurua eskainiko du, agureek gure zerbitzuak eskuratzeko arazorik izan ez dezaten. Gure funtzionamendua da benetan desberdina egiten gaituena; lehenik, bezero bakoitzaren txosten individuala eta sakona egiten dugu, eta, ondoren, haien gustuen, afizioen, bizimoduaren... arabera elkartzen ditugu.

Aurrez aurreko elkarretaratzeen bidez etxea partekatuko duten kideen artean aurkezpenak egiteko aukera izango dute, elkar ezagutzeko eta haien artean harreman bat sortzeko; horrela, etxebizitza partekatzerako orduan erosoagoa izateko eta gusturago egoteko.

Gainera, etxebizitza partekatzen jarraitu nahi ez badute, aseguru ekonomiko bat eskainiko diegu. Hau da, bezeroak gure zerbitzua amaitzeko eskatzen baldin badu, beste etxebizitza bat bilatzeko eta etxe-aldaketan laguntza eskainiko dugu.